

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3191

1160/2025 EBAZPENA, ekainaren 30ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez honako hiru ebazpen hauek aldatzen baitira deitutako destino kopurua handitzeagatik: 541/2025 Ebazpena, martxoaren 27koa, zeinaren bidez onartzen baitira zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldeko medikua kategorian (familiako medikua lanpostu funtzionala) estatutupeko lotura finkoa lehiaketa-sistemaren bidez lortzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak, 542/2025 Ebazpena, martxoaren 27koa, zeinaren bidez onartzen baitira Lehen Mailako Arretako Pediatria Unitateetan destinoa duten fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldeko medikua kategorian estatutupeko lotura finkoa lehiaketa-sistemaren bidez lortzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak, eta 544/2025 Ebazpena, martxoaren 27koa, zeinaren bidez onartzen diren estatutupeko lotura finkoa lehiaketa bidez lortzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak fakultatibo medikoak eta teknikoak lanbide-taldeko medikua kategorian (haur psikiatriako fakultatibo espezialista mediko lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 27ko 541/2025 Ebazpenaren bidez onartu egin ziren estatutupeko lotura finkoa lehiaketa-sistema bidez lortzeko hautaketa-probak arautuko zituzten oinarri espezifikoak fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldeko medikua kategorian (familiako medikua lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 27ko 542/2025 Ebazpenaren bidez onartu egin ziren estatutupeko lotura finkoa lehiaketa-sistema bidez lortzeko hautaketa-probak arautuko zituzten oinarri espezifikoak fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldeko medikua kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Lehen Mailako Arretako Pediatria Unitateetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 27ko 544/2025 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren estatutupeko lotura finkoa lehiaketa-sistema bidez lortzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldeko medikuaren kategorian (haur psikiatriako fakultatibo espezialista medikoaren lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.

Hala, ebazpen horien II. eranskinean (destinoen zerrenda), lanpostu funtzional bakoitzean txanda irekiaren bidez deitzen diren destinoak adierazten dira, bai sarbide orokorreko sistemaren bidez, bai desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-kupoaren bidez.

Martxoaren 27ko 541/2025, 542/2025 eta 544/2025 Ebazpenak eman ondoren, eta 2025eko martxoko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren ondorioz, aldaketak egin dira destino horietan, eta horien kopurua handitu egin da. Horrek eragina izan du bai lanpostu funtzional bakoitzean deitutako destinoen guztizko kopuruan, bai desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-kupoaren bidez parte hartzen duten izangaiantzat gordetako destinoen kopuruan.

Horregatik guztiagatik, aipatutako II. eranskinak aldatu egin behar dira, ebazpen honen ebazpen-zatian adierazitako moduan.

Indarrean dagoen legediak emandako ahalmenez baliaturik,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aldatzea 541/2025 Ebazpena, martxoaren 27koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartu baitziren estatutupeko lotura finkoa lehiaketa-sistema bidez lortzeko hautaketa-probak arautuko zituzten oinarri espezifikoak fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldeko medikua kategorian (familiako medikua lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan, 542/2025 Ebazpena, martxoaren 27koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartu baitziren estatutupeko lotura finkoa lehiaketa-sistema bidez lortzeko hautaketa-probak arautuko zituzten oinarri espezifikoak fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldeko medikua kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Lehen Mailako Arretako Pediatria Unitateetako destinoetan, eta 544/2025 Ebazpena, martxoaren 27koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen diren estatutupeko lotura finkoa lehiaketa bidez lortzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak fakultatibo medikoak eta teknikoak lanbide-taldeko medikua kategorian (haur psikiatriako fakultatibo espezialista mediko lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan (hirurak ere, 2025eko apirilaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutakoak). Hain zuzen ere, hau aldatzea:

Martxoaren 27ko 541/2025 Ebazpenaren II. eranskinen, destinoen zerrenda kategoria honetan: medikua, lanpostu funtzionala: familiako medikuntzako fakultatibo espezialista mediko – LMAT, hau dioen lekuan:

«Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 540/2025 Ebazpenaren bidez onartutako oinarri orokorretako 1. oinarrian xedatutakoaren arabera, destino hauek betetzeko deialdia egiten da:

Txanda askeko deialdia: 108 destino.

Sarbide orokorra: 100.

Erreserba-kupoa desgaitasunen bat duten pertsonentzat: 8.

Desgaitasunen bat duten langileentzako erreserbatutako destinoak ez badira betetzen ez dagoelako hautaketa-prozesua gainditzen duen izangai nahikorik, destino horiek txanda irekiko sarbide orokorreko lanpostuei gehituko zaizkie».

Honako hau esan behar du:

«Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 540/2025 Ebazpenaren bidez onartutako oinarri orokorretako 1. oinarrian xedatutakoaren arabera, destino hauek betetzeko deialdia egiten da:

Txanda askeko deialdia: 133 destino.

Sarbide orokorra: 124.

Erreserba-kupoa desgaitasunen bat duten pertsonentzat: 9.

Desgaitasunen bat duten langileentzako erreserbatutako destinoak ez badira betetzen ez dagoelako hautaketa-prozesua gainditzen duen izangai nahikorik, destino horiek txanda irekiko sarbide orokorreko lanpostuei gehituko zaizkie».

Martxoaren 27ko 542/2025 Ebazpenaren II. eranskinean, Destinoen zerrenda kategoria honetan: medikua, lanpostu funtzionala: pediatriako fakultatibo espezialista mediko – LMAT, hau dioen lekuan:

«Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 540/2025 Ebazpenaren bidez onartutako oinarri orokorretako 1. oinarrian xedatutakoaren arabera, destino hauek betetzeko deialdia egiten da:

Txanda irekiko deialdia: 18 destino.

Sarbide orokorra: 17.

Erreserba-kupoa desgaitasunen bat duten pertsonentzat: 1.

Desgaitasunen bat duten langileentzako erreserbatutako destinoak ez badira betetzen ez dagoelako hautaketa-prozesua gainditzen duen izangai nahikorik, destino horiek txanda irekiko sarbide orokorreko lanpostuei gehituko zaizkie».

Honako hau esan behar du:

«Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 540/2025 Ebazpenaren bidez onartutako oinarri orokorretako 1. oinarrian xedatutakoaren arabera, destino hauek betetzeko deialdia egiten da:

Txanda irekiko deialdia: 22 destino.

Sarbide orokorra: 20.

Erreserba-kupoa desgaitasunen bat duten pertsonentzat: 2.

Desgaitasunen bat duten langileentzako erreserbatutako destinoak ez badira betetzen ez dagoelako hautaketa-prozesua gainditzen duen izangai nahikorik, destino horiek txanda irekiko sarbide orokorreko lanpostuei gehituko zaizkie».

Martxoaren 27ko 544/2025 Ebazpenaren II. eranskinean, destinoen zerrenda kategoria honetan: medikua, lanpostu funtzionala: haur psikiatriako fakultatibo espezialista mediko, hau dioen lekuan:

«Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 540/2025 Ebazpenaren bidez onartutako oinarri orokorretako 1. oinarrian xedatutakoaren arabera, destino hauek betetzeko deialdia egiten da:

Txanda irekiko deialdia: 5 destino.

Sarbide orokorra: 5.

Erreserba-kupoa desgaitasunen bat duten pertsonentzat: 0.»

Honako hau esan behar du:

«Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 540/2025 Ebazpenaren bidez onartutako oinarri orokorretako 1. oinarrian xedatutakoaren arabera, destino hauek betetzeko deialdia egiten da:

Txanda irekiko deialdia: 6 destino.

Sarbide orokorra: 6.

Erreserba-kupoa desgaitasunen bat duten pertsonentzat: 0.»

Bigarrena.— Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 51. artikuluan xedatutakoaren arabera, baliozkoak izango dira aipatutako 541/2025, 542/2025 eta 544/2025 Ebazpenetako xedapenak, baldin eta ebazpen honek egindako aldaketak eragiten ez badie.

Hirugarrena.— Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutuak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 30eko 1160/2025 Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 30a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
SUSANA LÓPEZ ALTUNA.